

TXOKOALDE

Imanol Goenaga



Espedizio benetan polita


Duela 100 urte Kantauri Itsasoko azken balea harrapatu zutela ospatzeko antolatutako ekitaldietako bat gure auzo miragarri-raino iritsi zitzaigun joan den maiatzaren 13an. Antzinako lau txalupaz osaturiko espedizio bat auzoko zubiraino gerturatu zen. Bertan auzotar zein kanpotar ugari bildu zen ikusmira handiz. Ondoren, sagardo kupela ireki zuten aparkaleku berrian, jate-naz lagunduta eta giro ederrean aritu ginen, eguraldia ere aldeko izan baikenuen.

Bestalde, egun bat lehenago Irisasi etxeko gazteek festa antolatu zuten egun osoan zehar, etxea okupatu zuteneko

lehenengo urteurrena ospatze aldera. Zikiro jana eta festa nagusi izan ziren egun guztian zehar eta gauean kontzertua izan zen, talde askoren partaidetzaz, Usurbilgo Parafilipin taldea barne. Gazte hauek piskanaka etxea txukuntzen ari dira eta gogoz egiten dute lan urte guztian zehar, emaitza ikusi besterik ez dago. Lehen inor bizi ez zen etxe triste hau beren bizilekutzat hartu eta zeharo berpiztu dute. Eraikinak, berriz, bizileku faltan ziren gazte hauen beharrak asetzen ditu.

Amaitzeko ostiral honetan, hilak 18an, Akerra Gaztetxean beste kontzertu bat izango da. Lasarteko Bletz taldeak bere

lehen diska aurkeztuko du, Reptil eta Kray taldeen laguntzaz. Besterik gabe, agur eta sagardo egun ona opa dizuegu usurbildar guztiei.



KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



Bertsoak balkoitik balkoira

Sagardo Egunak berez herritarrengan egundoko irrika pizten du urtero eta hori eskertzekoa da nolabait ere. Urtean behin sagardoaren hiriburua bilakatzen da eta hori herritarrentzat harrotasuna bada ere, urte guztian zehar izan behar du sagardoak lekua.

Dena den, jende andana pilotzen den egun honetan kultur ekitaldiek badute bere lekua: irrintzi saioa, txalaparta, bertsoak, trikiti saioa... Hala eta guztiz ere, honelako laino multzoaren artean, askotan ekitaldiek folklore kutsua beharrean folklorismoaren norabidea hartzen dute, honela, zentzua eze-rezean geratzen da; hitz batean, bete-lana.

Aurten bertso eskolakook bertsoek nolabaiteko lekua izan dezaten balkoitik balkoira saioa egingo dugu maiatzaren 20an, eguerdiko 12.00ak aldera. Usadio zaharrari eutsiz -gaur egun mikroaz, noski-, Etxebeste kaleko balkoitik Irazu kaleko balkoira arituko dira bi bertsolari; Xabier Sukia eta Ibai Esoain, hain zuzen ere. Pernando Amezketarra eta Txabalategi duela 250 urte Villabonako plazan 4.000 pertsonen aurrean mikroirik gabe aritu

baziren ere, oraingoan Usurbilen beste hainbeste edo gehiagoren aurrean arituko dira Sukia eta Esoain. Jendearen arreta nolakoa izango den, beste upeleko sagardoa...

